PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0440 - Administrazioaren Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 400 - Foru Aldundiko zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketa
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Programa honen misioa da Foru Aldundian berrikuntza eta eraldaketa bultzatzea, herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuak hobetzeko, Aldundiarekin dituzten harremanak errazteko eta gizartearen beharrei modu eraginkorrean erantzuteko helburuarekin. Horretarako, sistema korporatiboak eta informazio sistemak mantendu eta hobetzeaz gain, eraldaketa digitala, datuen gobernantza, sinplifikazioa eta desburokratizazioa bultzatzen dugu, ekipamendu eta azpiegitura teknologikoetan beharrezko inbertsioak bermatuz.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoak jasotzen duen bezala, helburua da aurrerapenak egitea aurrea hartzen duen, ekintzailea, eraginkorra eta lankidetzan oinarritzen den Aldundi baterantz. Testuinguru horretan, eraldaketa digitala, datuen gobernantza, administrazioaren sinplifikazioa eta burokrazia-murrizketa sustatu nahi dira, Aldundiko departamentuekin, foru sektore publikoarekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean. Horren guztiaren xedea da barne-prozesuak hobetzea, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak optimizatzea eta Administrazioarekiko harremanak erraztea.

Eraldaketa digitala jarduera-ardatz nagusietako bat da. Horretarako, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatzen ari gara informazioa eta datuak modu adimentsuagoan erabiltzeko, eta, horren bidez, zerbitzu publikoen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko. 2026-2027 Eraldaketa Digitalerako Planaren garapenean, arlo estrategiko hauetan ari gara lanean: eraldaketa digitalaren kudeaketa, gaitasun digitalen sustapena eta langileen prestakuntza, datuen kudeaketa eta adimen artifizialaren erabilera, zerbitzuen digitalizazioa eta azpiegitura nahiz ekipamendu teknologikoen hobekuntza.

Jarduketa-ildo horiek aurrerapen handia izan dute azken urteotan, eta etorkizunari begira helburua da erakunde osoan sendotzea. Horretarako, funtsezkoa da garatzen diren metodologiak, tresnak eta baliabideak ahalik eta erabilgarrienak eta eskuragarrienak izatea, eta, era berean, laguntza eta aholkularitza indartzea arreta handiena behar duten arloetan.

Era berean, Eraldaketa Digitalerako Planaren esparruan, datuen gobernantza-politika integral baten ezarpenean aurrera egiten jarraituko da, horretarako sortutako antolaketa egitura martxan jarriz eta 2027rako jarduketa-plana garatuz. Halaber, Govtech proiektuari jarraipena emango zaio, berrikuntza eta prozesu zein zerbitzuen eraldaketa sustatzeko, proiektu esperimentalak garatuz.

Bestalde, Aldundiaren sistema korporatiboak eta informazio-sistemak mantentzeko eta hobetzeko lanarekin jarraituko da, eta informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistemaren garapenean urrats berriak egingo dira. Ahalegin hori administrazio elektronikorako aplikazio korporatiboen bilakaeran, erakundearen web-presentziaren kudeaketan eta herritarren arretarako zerbitzu korporatiboetan oinarrituko da.

Halaber, administrazioaren sinplifikazioa eta desburokratizazioa bultzatzeko ekimenak garatuko dira, bai herritarrei zuzendutako zerbitzuetan bai barne-prozeduretan. Jarduera horiek hainbat esparru hartuko dituzte barnean: herritarren karpetak, lineako zerbitzuak, barne-prozesuak, araudia, zerbitzuen proaktibotasuna eta herritarren arretarako kanalak.

Azkenik, beharrezko inbertsioak egingo dira azpiegitura eta ekipamendu teknologikoetan, helburu horiek guztiak betetzea bermatzeko eta herritarren beharretara gero eta hobeto egokitutako administrazio modernoagoa eta eraginkorragoa lortzeko.

Beharraren deskribapen xehatua:

Erakundearen berrikuntza eta eraldaketa sustatzeko, tresna, metodologia eta aholkularitza espezializatua eskaini behar ditugu, modu erraz, praktiko eta eraginkorrean, arlo hauetan laguntza emanez:

-Eraldaketa Digitaleko Planaren garapena bultzatzea eta eraldaketa digitaleko proiektu estrategikoak sustatzea.
-Datuen gobernantza-politika ezartzea, eta horretarako diseinatutako antolaketa-egiturak martxan jartzea.
-Administrazioaren sinplifikazioa eta desburokratizazioa sustatzeko ekimenak diseinatu eta gauzatzea.
-Govtech arloko berrikuntza-proiektuak koordinatu eta dinamizatzea.
-Herritarren arreta eta informazio-zerbitzuak hobetzea eta integratzea, kanal anitzeko ikuspegitik, eta komunikazio-kanal berriak aztertzea eta garatzea.
-Erakunde osoan informazioaren segurtasunaren kudeaketa-sistema ezarri eta sendotzea.
-Aplikazio korporatiboak eta informazio-sistemak mantendu, eguneratu eta etengabe hobetzea.

Nori zuzendua:

- Aldundiko Departamentuak, Zuzendaritza Nagusiak eta Zerbitzuak: eraldaketa digitala, datuen gobernantza, sinplifikazioa eta berrikuntza bideratzeko laguntza eta aholkularitza eskaintzen zaie.
- Herritarrak, enpresak eta elkarteak: kanal ezberdinetan komunikazio, informazio eta arreta zerbitzuak eskaintzen zaizkie.
- Foru sektore publikoa, udalak eta beste administrazioak: aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzen zaie.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Aurrekontuak, pertsonalaren dedikazioa, kanpo aholkularitza, baliabide teknologikoak eta aholkularitza teknikoa (IZFE).

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

-Eraldaketa Digitaleko Plana hedatzea eta sendotzea, haren jarduera-eremu nagusiak garatuz: kudeaketa estrategikoa, langileen gaitasun digitalen indartzea, datuen kudeaketa aurreratua eta adimen artifiziala, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuen digitalizazioa, besteak beste.
-Datuen Gobernantzarako 2027ko Plana diseinatu eta ezartzea, datuen kudeaketa eta erabilera eraginkorra bermatzeko beharrezko tresna eta egiturak garatuz.
-GovTech trakzio-proiektuaren bidez, prozesu eta zerbitzu publikoen berrikuntza eta eraldaketa sustatzea, ekimen eta proiektu esperimentalak bultzatuz.
-Administrazioaren sinplifikazioa eta desburokratizazioa sustatzea, eta arlo horietan aholkularitza eta laguntza eskaintzea.
-Aldundiaren aplikazio korporatiboak diseinatu, garatu, ezarri eta mantentzea, erakundearen beharrei erantzuteko eta etengabeko hobekuntza bermatzeko.
-Izapideen digitalizazioa eta espediente elektronikoaren ezarpena bultzatzea, administrazio-prozesuak eraginkorragoak eta irisgarriagoak izan daitezen.
-Herritarren arreta eta informazio-zerbitzuak eskaintzea eta hobetzea, aurrez aurreko, telefonozko eta kanal digitalen bidezko arreta integratuz eta koordinatuz.
-Informazioaren segurtasunaren kudeaketa-sistema ezartzen eta garatzen laguntzea, segurtasun-kultura indartuz.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- Erakundearen eraldaketako arlo ezberdinetan aholkularitza teknikoa.
- Datuen gobernantzako plana prestatu eta ezarri.
- Govtech pilotoen definizio eta garapena.
- Sinplifikazio eta desburokratizazio proiektuak.
- Aplikazio korporatiboak: erakunde osoan erabiltzeko diren aplikazioak eta hauen mantenua eta hobekuntza.
- Administrazio elektronikoa garatzeko sistemak eta aplikazioak, eta hauek ezartzeko laguntza teknikoa.
- Informazioaren segurtasuneko eta datu pertsonalen babeseko arloan aholkularitza.

Programaren arau esparrua:

- Prozedura Administratibo Orokorreko 39/2015 Legea
- Sektore publikoaren araubide juridikoko 40/2015 Legea

- Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzeko 23/2010 Foru Dekretua
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Arretarako Foru Sistema arautzen duen 9/2022 Foru Dekretua
- Foru sektore publikoaren datuen gobernantzarako politika orokorra eta antolaketa egitura arautzen duen 14/2026 Foru Dekretua.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko informazioaren segurtasun politika
- Gobernantza Onaren 4/2019 foru araua
- Administrazio arloko arautegi orokorra

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Lankidetzan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundi aurre-hartzailea, ekintzailea eta eraginkorra

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Internet bidez egin daitezkeen izapidetzen ehunekoa.	Ehunekoa	>=	91,00	90,00	92,00	95,00
Lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailearen garapenaren aurrerapen maila	Ehunekoa	>=	6,50	6,50	7,00	7,00
Digitalizazio planaren aurrerapen maila	Ehunekoa	>=	70,00	70,00	100,00	100,00
Erretiroa hartuko duten teknikarien % 90ean belaunaldi ondorengotza ziurtatzeko prozesuan parte hartzea	Ehunekoa	>=	99,00	99,00	90,00	90,00
Gobernantza aurre-hartzailearen eredura jarduera eredua diseinatzea eta hedatzea	Ehunekoa	>=	100,00	100,00	100,00	100,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Eraldaketa digitala sustatzea, datuen kudeaketa aurreratuan oinarrituz eta teknologiek ahalbidetzen dituzten irtenbide digital berriak txertatuz.

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**252.795,25**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Eraldaketa Digitaleko Plana bultzatzea, ezartzea eta koordinatzea.	155.698,36			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.2 Ekintza Trakzio proiektua: Govtech	47.325,06			2027/01/01	2027/12/31	✔
1.3 Ekintza Datuen gobernantzako politika garatu	49.771,83			2027/01/01	2027/12/31	✔

2. Ekintza lerroa:
Foru Aldundiaren kudeaketa sistema eraginkorragoa garatzea.

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**119.110,12**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Sinplifikazioa eta desburokratizazioa bultzatzea.	119.110,12			2027/01/01	2027/12/31	

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Kudeaketako tresnak, aplikazio korporatiboak eta informazio sistemak hobetu eta mantentzeko jarduketa operatiboak

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Kudeaketa sistemetan eta korporazioaren aplikazioetan hobekuntza proiektuak baloratzeko GFAren zerbitzuei zuzendutako inkestaren "balorazio orokorra" elementuan lortutako batez bestekoa	Kopurua	>=	0,00	8,44	8,00	7,80
Foru Jauregiko informazio eta arreta bulegora doazen pertsonei zuzendutako inkestaren "Asebetetze maila orokorra" eremuan lortutako batez besteko puntuazioa	Kopurua	>=	9,80	9,00	9,40	9,40

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Sistema korporatiboak mantentzea eta hobetzea



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**401.937,30**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Foru Aldundiaren informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema progresiboki ezartzea.	91.002,22			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Administrazio elektronikoko aplikazio korporatiboak mantentzea eta garatzea.	310.935,08			2027/01/01	2027/12/31	

2. Ekintza lerroa:
Aldundiaren informazio sistemak mantentzea eta hobetzea



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**694.824,05**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Aldundiko informazio sistema korporatiboak mantentzea eta garatzea.	87.703,17			2027/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza Foru Aldundiaren jauregira bisita gidatuak antolatzea	29.068,48			2027/01/01	2027/12/31	
2.3 Ekintza Gipuzkoako Foru Aldundiaren web presentzia kudeatzea eta hobetzea.	81.773,80			2027/01/01	2027/12/31	
2.4 Ekintza Herritarren Arretako Zerbitzu Korporatiboa garatzea.	496.278,60			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Inbertsioen exekuzio-maila	Ehunekoa	>=	100,00	80,00	80,00	80,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak gauzatzea



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**4.142.471,00**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak gauzatzeko baliabideak bideratzea	4.142.471,00			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Zerbitzutik bultzatzen ditugun hobekuntza proiektuen bitartez Aldundiaren eraldaketako arlo guztietan genero ikuspuntua txertatzeko aukera ikusten dugu.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Foru Aldundian sinplifikazioa eta desburokratizazioa ezartzeko orduan eta Eraldaketa Digitaleko proiektuak garatzeko orduan hizkuntza ofizialen kudeaketa txertazeko aukera ikusten dugu, ahal den neurrian euskara lan hizkuntza bezala indartuz. Datorren urteetan euskaraz sortzea bultzatuko dugu tresna korporatiboen eta hobekuntza proiektuen bitartez.

Kategoria	Nola
1.- Euskararen kudeaketa orokorra	**Sinplifikazio eta desburokratizazioa bultzatzeko unean, aztertzen diren prozeduretan hizkuntza berdintasuneko irizpideak aztertu.**
8.- Herritarrekiko harremanak	**Hizkuntza berdintasuneko irizpideak betetzen direla bermatzea.**
	Bisita gidatuak euskaraz eta gaztelaniaz egiten direla bermatzea.
	Hizkuntza berdintasuneko irizpideak betetzen direla bermatzea.
12.- Baliabide informatikoak	**Oinitzak egitasmoaren barruan, edukiak eta metadatuak lagatzeko, hizkuntza-eredu eta osagai linguistikoak entrenatzeko eta, horrela, euskara adimen artifizialeko teknologietan integratzeko, GFA eta EHUren arteko lankidetza hitzarmenaren eremuan, jarraipen batzordean parte hartu.**
	GovTech trakzio-proiektuan, bideratzen diren soluzio-tekniologikoetan hizkuntza berdintasuneko irizpideak txertatu.
	Erakundean datuen gobernantzaren kudeaketan hizkuntza berdintasuna bermatuz. HITZ eta EUSKORPORA hitzarmenen ezarpena sustatuz

PARTAIDETZA PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Hobekuntzako proiektu giltzarrietan herritarren nahiz Aldundiko langileen partaidetza bultzatuko dugu, batez ere digitalizazioaren eta tramitazio elektronikoaren arloetan aurki daitezkeen arrakalak gutxiagotzeko.

Kuantifikazioa:	3.113,97	(% 0,06)
Ordainketa kredituak:	3.113,97	(% 0,06)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	**(% 100,00)**	**7. Bestelako partaidetza prozesuak**

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024-2027 legealdirako Plan Estrategikoan zeharkako gaitzaile bezala ezarri du "Lankidetzan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundi aurre-hartzailea, ekintzailea eta eraginkorra" sustatzea; gaitzaile hau 16. Garapen Iraunkorreko Helburuan koka daiteke, hau da, bakea eta justizia bultzatuko duen erakunde solido bat bilakatzeko alorrean.

Kuantifikazioa: 5.611.137,72 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	**5.611.137,72**	
Helburua	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan	4.945.382,15	
	Ekintza lerroak		
	Sistema korporatiboak mantentzea eta hobetzea	401.937,30	
	Aldundiaren informazio sistemak mantentzea eta hobetzea	29.068,48	
	IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak gauzatzea	4.142.471,00	
	Eraldaketa digitala sustatzea, datuen kudeaketa aurreratuan oinarrituz eta teknologiek ahalbidetzen dituzten irtenbide digital berriak txertatuz.	252.795,25	
	Foru Aldundiaren kudeaketa sistema eraginkorragoa garatzea.	119.110,12	
Helburua	16.10 - Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarrizko askatasunak babestea, estatuko legeen eta nazioarteko akordioen arabera.	665.755,57	
	Ekintza lerroak		
	Aldundiaren informazio sistemak mantentzea eta hobetzea	665.755,57	
Guztira		**5.611.137,72**	

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	1.198.810,00	1.182.665,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	304.250,00	285.850,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES							
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**1.503.060,00**	**1.468.515,00**					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES		150,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	4.000.000,00	4.142.471,00					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**4.000.000,00**	**4.142.621,00**					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	**5.503.060,00**	**5.611.136,00**					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	273.044,12	909.620,87			273.044,12	909.620,87
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	98.861,25	186.990,48			98.861,25	186.990,48
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**371.905,37**	**1.096.611,35**			**371.905,37**	**1.096.611,35**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES		150,00				150,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		4.142.471,00				4.142.471,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		**4.142.621,00**				**4.142.621,00**
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	**371.905,37**	**5.239.232,35**			**371.905,37**	**5.239.232,35**

Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos	2027	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAKIMPUESTOS DIRECTOS		
2. ZEHARKAKO ZERGAKIMPUESTOS INDIRECTOS		
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAKTASAS Y OTROS INGRESOS		
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAKTRANSFERENCIAS CORRIENTES		
5. ONDARE SARRERAKINGRESOS PATRIMONIALES		
Eragiketa arruntak, guztira / Total operaciones corrientes		
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEAENAJENACION DE INVERSIONES REALES		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAKTRANSFERENCIAS DE CAPITAL	1.899.041,00	
Kapitaleko eragiketak, guztira / Total operaciones de capital	**1.899.041,00**	
8. AKTIKO FINANTZARIOAKACTIVOS FINANCIEROS		
9. PASIBO FINANTZARIOAKPASIVOS FINANCIEROS		
Finantza eragiketak, guztira / Total operaciones financieras		
Guztira / Total	**1.899.041,00**	